

Bilboaldeko hiritarren ekimen sozialak

Jose Joakin Gallastegi Jn.

Bilboko Udaletxeko Euskararen zerbitzuburua

Director del servicio de euskera. Ayuntamiento de Bilbao

Euskeraren aldeko mugimenduak zelan sortu, zertan gauzatu eta norantza jo duten gure Uriaren esparruan. Ikuspegi orokorra.

Iniciativas sociales de los ciudadanos de Bilbao

Crónica en cuatro actos por las iniciativas y proyectos en favor de la lengua vasca y las que toman la lengua vasca como expresión vehicular, desarrollados en la sociedad de Bilbao a lo largo del siglo XX, particularmente en los últimos cuatro decenios.

Social initiatives by the citizens of Bilbao

Chronicle in four acts of the initiatives and projects in favour of the Basque language, and those that used the Basque language as their vehicle of expression, developed in the society of Bilbao over the course of the XX century, particularly in the last four decades.

Lau haizeak aukeratu ditut neure mintzaldi laburra antolatzeke. Aitortu behar dut ideiak bata bestearen ostean behar bezala josteko abilezia duten horiei inbidia benetakoa izan diedala betidanik. Beraz, mintzoa disziplina apur batez jantzi nahi izan dut, esan gabe gera daitezkeenetaz damutu baino lehen.

Harira etorrira, Bilboko giroan XX.mendearen azken hamarkadetan hara eta hona eragin duten euskaltzaleon hauspoen kronika laburra egin nahi dizuet, aztertu ahal dudan neurrian eta zuen baimenarekin ondorio bat edo beste aterra, beti bezain subjektibo gorde nahi dudan neure baitatik.

I

Lau haizeetarik, sortaldea dugu lehenengokoa. Eta historiak ez atsedenaldirik, ez abiapunturik ezagutzen ez duela jakinda ere, irteerako marra bat zehaztu behar eta oroimenak berrogei urtez atzera eraman nau, 60ko hamarkadaren hasierara.

Lau aurpegi ikusten ditut gure ibilbidearen hasiera konbentzional hartan. Lau baino gehiago zirela dudarik ez da, ez askoz gehiago hala ere; baina badira beti pertsona batzuk garai jakin bateko sintesiaren ikurra izateko erreztasun handiagoa eman digutenak, beste asko ahaztutakoen anonimatora kondenatu dugun bezalaxe.

Laurak gizon, laurak gafadun, laurak frankistek probokatu zuten gerra giroan haziak. Binaka aurkeztuko ditut, zuetako askorentzat banan banan ere oso ezagunak diren arren. Lehen pareak, *Alfonso Irigoyen* eta *Gabriel Aresti* euskeraren itsasoan murgilduta, sasoiaren diren gazteen modura hara eta hona igeri, arriskueta gehiegi erreparatu gabe, olatu indartsuen zartakoei sarri aurretik eta atzetik minduta.

Alfonsok gerra osteko Uriko lehenengo ikastolaren sorrera oso hurbiletik ezagutu bazuen ere, irakasle akademiko moduan beteko digu ibilbidea. Garaiak eskatzen zuen lanari bizkarra eman gabe, Areetzako kioskoan Bizkaiko Bertsolarien Txapelketak berpizten 50eko hamarkadan, antolatzaile, epaile zein gaijartzaile moduan. Gabriel Aresti, neuretzat artista beste birtute guztien gainetik, euskerari estetika berri bat atera nahian. Biak Uriko intelektual garaikideekin harreman estuan, Concordiako tertuliakide, non euskal eta erdal kultur gileen arteko tratua gaurkoa baino askoz hurbilagoa zen.

Ez naiz idazle bi hauen obra aipatzen hasiko, gaurkoa ez baita horretarako eta, batez ere, literaturaren alderdi horretan nor ez naizelako. Hona ekarri gaituen aztergaia giza-mugimenduen nondik norakoak izanda, euskeraren martxan Bilboko Urian eragina izan duten neurrian ekarriko ditut gogora, Alfonso eta Gabriel bezala, aurrerantzean entzungo duzuen izen zerrenda luzea.

Beste biak, *Imanol Berriatua* eta *Xabier Gereño*, ezarria zioten kaiolatik euskera askatu nahian, gure hizkuntza ezkutaturik zuten ghettotik atera eta

zabaltzea izan zuten obsesio eta amets, euskal posibilitate ia bakarra *Don Klaudioren* meza zen garaian.

Amankomuneko ezaugarri oinarritzko batzuk aipatzekotan, lehenik *Isolamendua* ikusten dut. Frankismoaren zulo beltzean sartuta eta zigortuta, non euskera deabruaren mintzoa bailitzaneko giroari gehitu behar zaio gure hizkuntzak ez zuela bat ere izen onik ezta diktaduraren aurkakoen bandoan ere; badakizue liberalismoak, unibertsal bihurtzeko bidean, aspaldi egina zuela hautua Don Miguelen alde. Marjinala ere bazen gure laukotearen zaletasuna, baina orduko protagonistei entzunda, kulturaren inguruko guztia zen orduan marjinal eta susmopeko; beraz, hobeto sartzen badugu laukotea isolamendu ziegan.

Bigarren ezaugarria, *Laikotasuna*. Imanol Berriatua frantziskotarra izan ezik, gainerako hirurak ez ziren elizkume, ez lanbidez ez ikasketez. Eta hori guztiz harrigarria dugu orduko euskal kultura dei dezakegunaren panoraman. Nahiz eta hiriko giroan nor non jaioa den herrietan bezain garrantzitsua izan ez, ezin zaio kasualitateari leporatu Imanol elantxobetarra kenduta beste hirurak bilbotar izatea. Uria eta laikotasuna gehiago edo gutxiago beti ezkondu izan dira nahikoa ondo, baina gure kasuan deigarriena da hori gertatzen dela euskaldun=bizkaitar eta erdaldun=bilbotar binomioa isladatzen duen gizarte batean. Ez naiz bilakaera historikoaren puzzlea belaunaldika osatzeko zalea, baina onartu behar dugu oso koadrila ezohikoa osatzen zutela gure lehenengo lau protagonistek.

Ezaugarriekin bukatzeko, laurak batzen zituen erakundea: *Euskaltzaindia*. Erribera kaleko koba hura zuten operazioen kontrol-dorretxoa, gutxieneko babesa eman zezakeen Akademia zaharkitua, non gero eta nabariagoa zen mentalitate bi tupust egitera zihoazela.

Eta polemika gordinez jositako urte batzuen ostean batuaren aldekoek irabazi zuten dema. Gure laukoteak ez zuen dudarik izan Euskaltzaindiak hartutako erabakiaren onuraz. Ezinbesteko zuten Euskalherriek hizkuntza gaurkotu eta estandarra herri euskalduna izan nahi bagenuen.

Oso erabaki bilbotarra batuarena, Uriko batek baino gehiagok parte oso zuzena hartzeaz gain (Aresti, Irigoyen edo -beste neurri batean- Federico Krutwig getxotarra), hizkuntzari egin nahi zitzaion makillajea giro urbanoan behar bezala aurkezteko asmotan pentsatua zutelako: negozio munduan, unibertsitatean, komunikabideetan edo euskal produktuaren zabalkunde eta salmenta masiboagoan ari ziren amesten; eta modernizazio horrek Bilbo jotzen zuen bete-betean.

Euskera berriak -orain *euskara* deitzen zuten, inguruko euskaldun askoren harridura eta haserrerako- euskera berriak diot, berehalako oihartzuna izan zuen gure hirian. Non, bestela?

Frankismoaren azken fasean sortutako giroak lagunduta, edo antifrankismo-rik helduenaren frutu gisa nahiago baduzue, dozenaka gazte hurbildu zen eus-

kerako eskolara, ehundaka gero eta laster milaka izan ziren aberriaren altxorren bila abiatu ginenok. Inoiz ikusi gabeko euskera-gosekadarik handiena izan zen hura. Nonnahi ikus zitezkeen pankartak, *Unibertsitatea Euskaraz NAHI BEHAR dugu* edo *Irratia* zein *Telebista Euskaraz ORAIN* ziotenak. 70ko hamar-kadara pasa naiz.

II

Gerra eta gerraostearen izua ezagutu gabeko gazteria ausartago zetorren gauza gehienetan eta, batez ere, euskal sinbologia harro erakusteko orduan. Orduantxe igerri zen, nabarmen gainera, gure laukoteak urte luzez egindako lanaren garrantzia. Gitarra baten laguntzaz hasia zen *Natxo de Felipe* Arestiren poema batzuk estudianteen artean zabaltzen; oraindik baten batentzat gorriegiak, berdea eta zuria estaltzerainokoak, baina laster makurtuko ziren denak euskal modernitatearen mirarira eta aldareetaraino igoko Gabriel Aresti Segurola ordurarte kondenatua zuten abertzale euskaldun eta erdaldun askok; pena poetak ezin izan zuela euskal eztiak gozatu -ala eskerrak, nork daki, olerkari batzuk hain aldrebestuak direnez gero-, baina kontua da Arestik azken hatsa 1975ean eman arren, zendu ondoren izan duela bere figurak eraginik handiena gure artean.

Alfonso Irigoyenek Euskaltzainditik eta, batez ere, Deustuko Unibertsitateko katedratik elikatzen zuen belaunaldi berria euskeraren funtzionamenduaz, toponimiaren froga dokumentaletaz eta haruntzago joan nahi zuenari espezialistaren aholku bibliografikoa emango zion musutruk.

Gereñok, beti bezain idealista eta pragmatiko aldi berean, prest zeukan *CINSA* bere editorial-disketxea grabatzeko ahalmenik ez zuten kantari hasi berrientzat. Ez ahaztu Benito Lertxundi handiak hantxe grabatu zuela bere lehen singlea, hementxe esan nahi dut; denen zerbitzura jarriko zuen Xabierrek koru, txistulari eta kantari ye-yeentzako antolatuak zituen jaialdien esperientzia, behin baino gehiagotan Basauriko bakardadera eramango zuen esperientzia bera. Ez ahaztu hamarkada zoragarri hartan bera izan zela euskera ikastera hurbiltzen zen ikasle mordoaren eskuetan liburu gehien jarri zituena.

Imanol Berriatua, hildo beretik, euskeraren zabalkundeak hartua zuen abia-da biziaren militante sutsua, hara eta hona zebilen eskolak emateko metodologiaz edo idazkera berriaz. Bi aportazio nagusi egin zion erlojuaren kontrako lasterketa hari, eta biak Bilborekin oso lotuak.

Frantziskotarrek 1953an sortu zutenetik, bera zen *Anaitasuna* aldizkariaren arduraduna. Urteak beranduago gai orokorren informaziorako bihurtu eta 70eko hamarkada honetan batuaren proiektura hurbildutako intelektualen kontrastegunea gertatu zen, tartean Bilbo inguruko Aresti bera, *Kintana*, *Zelaieta*, *Torre*, *Trifol* edota *Eguzkitza* zirela. Lan eskergaitza burutu zuen frantziskotar nekagabeak aukeratutako batuaren alde aldizkarian argitaratzen ziren artikulu

eta kronika guztien orrazkeran, irakurleak estilo bat eta bakarra nabaritu zezan.

Bestetik, nahiz eta Imanolentzat dena bat bera izan, aitortu behar zaio euskera irakasteko metodologian emandako saltoan zor diogun meritu handia. Baina helduon euskalduntzearen arloa beste kide batek jorratuko du jardunaldiotan eta ez naiz gehiegi sartuko eman ez didaten enkarguan. Bai aipatzea, ordea, Bilboko Erriberan *Euskalduntzen* metodoa erditu zuen taldea. Kontu metodologiak alde batera, orduan ezer gutxi ardua baitzigun euskaldun bihurtzeko teknikak, metodo hura izan zen askorentzat ordurarte nahikoa ezkutuan eta sakabanatuta ibilitako jarduerari homologazio bat eman ziona, eta hari esker jende gehiago euskera ikastera animatu, taldeak modu arrazionalagoan antolatuta, mailaketa osatu eta lehen ikastaro intentsiboen gailurreraino heldu. Galdetu bestela ordudanik honen kale paraleloan jarraitzen duten *Bilbo Zaharra* euskaltegi-koei. Hau guztia, Bilbon. Imanolen ingurura batutako taldea Urira ikastera etorritako bizkaitar gazteek osatzen zuten eta askok izango duzue gogoan oraindik *Euskalduntzen* deitutako hiru liburu haien azalak, non kolore desberdinetan Imanol bera ikus zitekeen, ikasleak begira zituela, harbelean idatzitakoa seinatutaz. *Sabin Egileor* Bilboko euskerazko irakaslerik beteranoena, *Juanjo Zea-rrera*, *Juan Luis Goikoetxea*, *Xabier Kintana*, *Ricardo Badiola*, *Koldo Zuazo*, *Jon Aurre*, *Xabier Oleaga*, *Joseba Tobar*, *Jose Ramon Etxebarria*, *Munduate*, *Iñaxio Intxaurre*, *Albaro Legarreta*, *Elgezabal*.

Ezertan luzatzea beti kaltegarri delarik, ezin dut utzi aita Berriatuaren ataltoa Israelera egin zituen bisita luzeen ondorioz ateratako materiala aipatu gabe *Iberduerok* argitaratu zion *Hitz Egin* metodoan bilduta, eta aldi berean guztiz bilbotarra den inbento baten izena berari zor diogula gogoratzea bidezkoa iruditzen zait laburpen honetan. Imanolek egun batean ikasleen erritmoa bizkortuko zukeen metodoari bueltaka, bere energia enbidiagarriaz holantxe bota zuen: “zuek diozuen horri *euskaltegia* deitu beharko zaio”. Eta holantxe izan zen, Elantxobeko praileak bataiatuta.

Tartean ikastolen fenomenoak zabaltzen zihoan, herri euskaldunetan ezezik urte asko euskeraren arrasto barik zeramaten herri eta auzoetan ere; horrek esan nahi du Bilbo aldean euskerazko irakaskuntza hartzen zuten umeak familia jakin batzuen testigantza isolatua izatetik askoz gehiago orokortzera pasa zirela kopuruan, esparru geografikoan zein jatorri sozialean; hala ere, ugarte bat baino ez zen oraindik ikastola Bilbo aldeko eskola eta kolejoen ozeano erdaltzalean.

Helduentzako gau-eskolek urterik urte hartutako tamainoak antolamendu propioa eskatzen zuen, legezko babesaren ematen zion Euskaltzaindiaren *Jagon* Saitetik libreago; *Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea* osatu zuten, AEK, talde eta dinamika ugariaren biltoki. Hasieratik izan du Bilbok protagonismo berezia AEKn, bai ikasle kopuruan bai norabidea markatu duen zuzendaritzan, bai zerbitzu zentralen kokagunean ere.

Eta aldi berean, bazen helduentzako irakaskuntzari erritmo biziagoa eman

nahi ziona; nolabaiteko profesionaltasuna eskatzen zuten Uriaren erdigunean ziren euskerazko eskolen nukleokoek. Garbi zegoen gau-eskolen planteamendu nahikoa boluntaristarekin ez zegoela ikasleari kalitatezko baldintza askorik eskaintzerik. Eta euskaltegiak sortu ziren. Korreo kaleko Bilbo Zaharra lehena, Kale Nagusiko *Aresti* gero, Urkixoko *Ulibarri*, Deustuko *Zubibarri*, Gordonizko *Juan Mateo Zabala*. Euskaltegia, beraz, Bilboko produktua dugu. Nongoa bestela?

Barkamena berriro, nire aldetik, bihar mintzatuko zaigun Xabier Monasterio irakasleari, baina helduen euskalduntzearen esparruaren hesiaren gainetik salto egin badut ez da izan inori berea kendu nahian, baizik eta irakaskuntza formaletik haratago doan fenomeno bat aipatu beharrean nagoelako euskeraren aldeko giza-mugimendua, gainetik sikira, aztertzeke.

Hamarkadaren bukaerarekin etorriko zen ilusio, erreibindikazio eta zabal-kunde garai hartako gailurra. Ohiko manifestazioen moldea gaindituz, jai-ospakizun kutsu nabarmeneko ekitaldietan azalduko zen euskeraren aldekoen borontatea. 1977an lehen aldiz ausartu ziren Gipuzkoako ikastolak *Kilometroak* antolatzen. Kaliforniatik ekarritako formula ezin hobeto txertatuko zen euskal peregrinazio gisa, non duro mordo batzeaz gain, nahikoa izan ziren hamar ordu euskaltze askoren arteko halako gorpuzte moduko bat gertatzeko, oso giro baikor eta beroan. Propaganda ederra, bide batez. Ez ahaztu tankera beretsukoa izan zela urte hartako udan Amnistiaren Aldeko Batzordeek eraturiko *Askatasunaren Ibilaldia*, jendetsua eta sinbologian hain bibliko gertatu zena. Abian zen herri hau paradisu aldera, urte isilduetan pilatutako indarrez gainezka.

Hurrengo udaberriak ezagutuko zuen euskeraren aldeko inoizko kanpainarik sonatu eta zabalena. Euskaltzaindia antolatzaileak hartu zuen protagonismoa *Bai Euskarari* hartan. Herri eta auzoetan -orduak oso ondo bereizi behar ziren kontzeptu biak- burutu ziren Akademiaren aldeko kolekta domunianoek motorra berotuta, San Mamesen 40.000 euskaltzale euskaldun zein erdaldun batu ginen ekainaren 17an euskeraren aldeko gol paregabea bibaka eta goraka ospatzera. Oporretatik bueltan konzentrazio eder haren bigarren zatia izango genuen Legaireko zelaian, bertsio kanpestrean. Ofizialtasuna eskatzen genuen, eta presentzia handiagoa arlo guztietan.

Bilboko Uria berriro protagonista. Euskaltzaindiak, Arbieta kalera aldatuta, babes legala eta biltoki baino askoz gehiago euskeraren bereskurapenerako gidari nagusia bihurtuta, *Euskararen Liburu Zuria* plazaratu zuen aldi berean. Bertan, *Siadecoko*en laguntza teknikoaz, hamar urte lehenago Arantzazuko batzarretan hizkuntzaren *corpus*arekin egindakoa osatzera zetorren Akademia, baina oraingoan *status*arekin. Euskeraren bilakaera historikoan gure hizkuntza hain maitatuaren aldeko zein kontrako eragileak aztertuz 1978ko egoerari buelta emateko gomendioak ematen ditu liburuak, itxura zientifikoan.

Maila guztietako etekinak ikusita, berehala etorri ziren erreskadan gainera-

ko probintzietako egun handiak: *Ibilaldia* 1978 honetan bertan, 1980an *Araba Euskaraz* eta 1981an *Nafarroa Oinez*; *Herri Urratsekoek* itxi zuten inbento inportatuaren hedapen operazioa 1983an.

Ezin alde batera utzi, Bilbo inguruko jendeak asmatua izan zelako gainera, 1980an *AEK* martxan jarri zuen *KORRIK*Aren lehen edizioa. Koordinakundearen garaia pasata eta funtzionamenduko aparatu homogeneoa bihurtuta, euskeraren izenean *AEK*rentzat dirua batu eta propaganda egiteko tresna eragin-korra suertatu zen, eta da, oraingo larunbatean gure kaleak berriro bisitatuko dituen ekitaldia. Sinbologiaz betetako hamabostaldia izan zen hura, lasterketa Oñatiko sarobetik irten eta zazpi probintzietako urak batu zituen Bilboko itsasora isurtzeko; egina zuten antzerako bat, baina benetako karreristekin, gerraurreko beste bilbotar batzuk *EXCELSIOR* kirol egunkariaren gerizpean.

Hunkigarria izan zen euskeraren troparen burrunba Gran Viatik gora zetorrela entzutea, Bilbo eta Euskalherri osoa euskalduna izatearen ametsa errealtate bihurtuta, domeka eguerdi hartan sikira. Elkarlana eta fede beharra leku-koak adierazten zuen, dena zegoen sinbologiaz kargatuta, *KORRIK*A bezala gorago esandako ekitaldietan ere, non giroaren elektrizitateak bertan batutako-en pilak topera kargatzen zituen, euskaldun izan zein erdaldun jarraitu. Gainerako diferentzien gainetik, euskarak batuta, edo itxura hori eman behintzat. Zaila da baina, ia ezinezkoa batasun hori, gainerako diferentzia horiek hizkuntzaren defentsaren oinarrian bertan kokatzen direnean, hainbestetan gertatu bezala.

70ko hamarkada definitzeko ezaugarri nagusia *Espansioa* iruditzen zait berberik egokiena. Euskaldunen kopurua gehitu eta gehitu, handik eta hemendik, Euskalherrietako biztanle guztiak ergatiboaz jabetu arte.

Eta ezaugarri honen inguruko gorabeherak aztertzeko ezinbestekoa dugu, nahita nahiez, gora egitea, ipar aldera; euskeraren alde bai baina batzuen eta besteen praktikatik usaintzen den helburua ez da beti bera.

Hasteko, euskalduntzea da protagonismo osoa hartzen duena. Eta zehatzago, harbelapeko euskalduntzea, eskolakoa; ikasgelako ikaslea bihurtuko da eredu. “Bada al ikasgelarik gabeko ikaslerik?” galdetuko dit batek baino gehiagok. Askorik ez, nire erantzuna, baina baziren bakan batzuk baserri batean sartu eta euskera bertan ikasitakoak.

Baserriko familiaren modalidade horrekin eten egingo du klarionaren garai berriak, non garrantzitsuena ahalik eta eskolordu gehien ematea da, baita barne-tegiaren baintutik pasatu ere, baina beti maila bereko ikasleekin batera eta planteamendu akademiko baten barruan. Adi egon, honek suposatzen duelako pertsona helduak hizkuntza ikasteko duen bide naturalenaren likidazioa.

Euskalduntzea baino askoz atzerago geratu zen alfabetatzea, kopuruan eta intentsitatean. Batuaren garaipenak nahikoa baztertuta, baziren gune batzuk lehendik ere euskeraren alde ari zirenak. Hor dugu Euskaltzaindiak onartutako

proposamenarekin konforme ez zegoen *AGUR* Bilboko aldzkariaren inguruko jendea edo *Euskerazaleak* alkartekoak, bizkaiera eta bereziki tokian tokiko ahozko hizkuntza jainkotzat hartuta, *Coca-Colak* babestutako metodoaren egile eta eragile. Azken hauek kontrakademia bat sortu zuten 1978an, *Euskerazaintza*.

Bestetik, *Jose Antonio Retolaza* bilbotarrak sortutako *Kili-Kili* pertsonaia, aldzkaria eta erakunde, euskal mundutxoaz azken batean, non guztiz erdaldun eta espainolzale zen irakaskuntzan ari ziren ume euskaldun askori beraien hizkuntzaz eta kulturaz janzteko atea zabaldu zien marrazki eta historioez betetako koadernoan bitartez San Antongo elizatik; 1964an etorri zen mundura *Kili-Kili*, ume guzti haiek etxean egiten zuten euskera berean.

Urte gutxi geroago antolatuko zuten lehenengoz *Derioko ikastaroa*, Seminarioko euskaltzaleen ekimenez, *Mikel Zarate* buru. Ikastaroaren inguruan eragindako dinamika bideratzeko *Labayru Ikastegia* sortu zuten Deriokoek eta egoitza Bilbora ekarri. Eurek izan dira ordutik alfabetatzearen erreferentzia nagusia, alfabetatzea oso modu zabalean ulertuta, berbak paperean zelan imini bai baina beti edukin kultural eta literarioari oso lotuta. Ibili duten eslogana oso adierazgarria da alde horretatik: *Abozkotik idatzira eta bizkaieratik baturantz*, oker ez banago.

Ahozko ereduari askoz gehiago begiratzen zioten guzti hauek saku berean sartzea legezkoa ez den arren, guztiei nabaritzen zaie espansioa ez den beste filosofia bat. Garrantzia lehendik datorren euskaldungoari ematen diote, hango eta hemengo hizkera begirune handiz ulertu eta bertokoa, Bizkaikoa kasu honetan, landu. Iturriaren ur gardena ziurtatu, azken batean. Herri-hizkeraren artzainak ditugu hauek. Eta, ikusten duzuenek, Bilborekin harreman zuzenean.

Txarrena, bide biak -espansioa eta iturrikoa- ez zirela osagarri gertatu. Alde bietakoak erlijio formakuntza nabarmenekoak izan arren, espansionistek irudi laikoagoa maite zuten -elizaren aurkakoa ere, sarri- eta tradizioari ez zioten garrantzi handirik ematen. Besteak betiko moldeei lotuago, hizkuntza zein gainerako arloetan. Azkenean nor bere esparrua joan zen antolatzen, batak beste-ari begiratu gabe.

AEKk Bilbo inguruan milaka ikasle zuen bitartean, *Labayrukoen* ikastarora seirehun-zazpirehun ikasle hurbilduko ziren gehien jota Bizkai guztitik. Ez noa batzuen eta besteen lana batutako ikasleen numerotan konparatzera, oso ekimen diferenteak baitira bata eta bestea. Baina zifrak argigarriak dira euskaldunengan, Bilboko euskaldunengan zehazkiago, aldeko giro harek zein gutxi eragin zuen ikusteko. *AEKn* eta gainerako euskaltegietan alfabetatzera jotzen zuten euskaldunak, hain gutxi izanik, gehienetan eskolatu gabe geratzen ziren talderik ezean, edo okerreko taldean akonplejatuta. Ordutik dator euskaldunari adjetiboa jartzeko bizioa; *berria* eta *zahararren* artean badakigu gurean zein den disdiratsuen; hiztunentzako apaingarriak erabakitzen hasita, euskera bidean zen ama-hizkuntza bakoari *euskaldun urikoa* deitzea izango zen zehatzagoa, betikoa jubilatzea baino.

Ondorio garbia ateratzen dut alde horretatik: Bilbo aldean gailendu zen filosofia espansionistan ez ziren integratu bertoko euskaldun gehienak; euskera berria arrotz zitzaizela edo dinamika berriaren estetikarekin identifikatu ez zirelako, edo dena delakoagatik, kontua da bertoko euskaldungoa abia bizian uste genuen prozesu hartatik aparte lotu zela neurri handiz; eta horrela oso zaila da hizkuntz komunitatea osatzea.

Ez dut ahaztu giza-mugimenduen inguruan aritzeko jardunaldiak direla gaur hasitakoak. Sarri gertatzen da, hala ere, plazan ezelango zaratarik atera ez duten gartakariak gerora garrantzitsu bihurtzea. Horregatik aipatu dizuet hizkuntzari buruzko ikuskera bien arteko lokarri eza eta Bilboko euskaldun askoren absentismoa.

III

Sar gaitezen 80ko hamarkada trinko bezain korapilatuan. Autonomiak emandako baliabideei esker erakundetze prozesu bat gauzatu zen euskeraren maila guztietan. Ez euskal probintzia guztietan hala ere, eta horrek kontrako erantzuna ekarri zuen, eta ez bereziki euskera bultzatzeko tresnetan pobreen geratzen ziren lurraldeen aldetik, baizik eta Araba-Bizkaia-Gipuzkoa osatzen zuten Autonomia Erkidegotik bertatik batez ere.

Azken urteotako ez tandaren ajea laster etorri zitzaigun. Asmo politiko orokorrak alderdi, programa eta jarduera diferentetan gauzatu zirenean, hainbat eta hainbat arima gaisotu egin ziren desengainoz; sistema hark euskeraren defentsa joko politikoaren beste elementu bat bihurtuta, are zailagoa zelako hizkuntzaren aldeko batasun amestua. Agur birjinitateari.

Zer ekarri zion Bilbori molde berriak? Telebista izan zen nobedaderik handiena, ikusgarriena; aldi berean, euskeraren irakaskuntza zein indartsu sartu zen eskoletan. Bertan antolatzen hasiko ziren, irakasle zein gurasoen inplikazioaz, Kultur Asteak, Euskeraren Egunak eta ikasleria erdalduna euskeraren aldeko jarreran girotzeko eskura zegoen guztia. Esan dezadan bide batez telebista zein eskolako eredu berriak nahikoa arrotz gertatu zitzaizela betiko euskaldunei Bilbo aldean. Ilusiñoa bai, euskerazkoa zelako, baina mundu berri bi haiekin elkar ulertu, ezer gutxi, bertan enplegatuta egon ezean.

Alderdi legezstatuen dinamikan euskerarenak jai zeukala eritzita, *Euskal Herrian Euskaraz* taldea sortua zuten 1978an. Bilbok ez zuen aparteko garrantzirik izan kolektibo berriaren sorreran ez garapenean. Autonomiaren sistemaren inkapazitatea demostratzea ardatz politiko eta ikur nagusia zutenengandik hurbil, talde honen tankera errebindikatiboa euskaldunon eskubideak aldarrikatzen zentratuko da, instituzio publikoen gabeziak salatzearekin batera. Helburua, ipar aldera jo beharrean nago berriro, Euskalherri euskalduna: euskerak gaztelera ordezkatzeko gure gizartearen maila guztietan, ikusgai den sinbologian bereziki azpimarratuz (kale izenak, errotuluak, etabar).

Baina aipatutako erakundetzea ez da Gasteiz edo Iruñeako gobernuen egituretara mugatzen. Euskal kulturaren inguruko elkarteak eta enpresak sortzen eta indartzen doaz: argitaletxeak, disketxeak, irakaskuntzakoak, itzultzaileak, artistak, bikoizleak, bertsolariak, hiztegiak etabar; hizkuntzaren inguruko industriadun subentzionatua, neurri handi batean Bilbori bizkarra emanda erakia izan zen. Nabaria da gure Uriak galdu egiten duela aurreko hamarkada bietan euskeraren aldeko mugimenduan zuen protagonismoa. Arrazoiak beste baterako, saltzen dizkiguten liburuak nork eta nondik idatziak diren, edo gure jaietan eszenatokira igotzen ditugun talde eta bakarlariren jatorriaz jabetzea baino ez dago Bilbao atzean geratu zela ikusteko.

Libretik doazenen salbuespenak badira gurean. Hor dugu, adibidez, *Pott* banda gazte literarioa non, bilbotar bakarra *Juaristi* izan arren, Bizkaiko hiriburuan egin zuen kabia gerora euskal letretako gailurra konkistatuko zutenen kadrila alegerak.

1981an hil zen Imanol Berriatua eta *Anaitasuna* akituta berarekin eraman zuen. Oso kasu tipikoa euskeraren kontuetan *pertsonalismo*arena. Obra bere egileari hain lotuta dago sarri ze egindakoa ez zaio hurrengoari transmititzen bidean aprobeitza dezala; eta ez egileak nahi ez duelako -nork ez ditu norberaren jarraitzaileak maite?--; arazoa da hurrengo horiek, euskeraren injustizia deskubritu berriak normalean, zerotik hasi nahi izaten dutela aurreko guztiaren balioaz ahaztuta; azken batean, pertsonalismoaren erroak gehiago sustraitzeko. Laugarren haizeak harrapatu gaitu konturatu gabe: Sartaldeak.

Harira dator Xabier Gereñoren adibidea. Bilbon 80ko hamarkadan barna euskerarako guneak irabazi nahian *Euskaldunen Afariak* bataiatu zituen hilean behineko haiek ditut gogoan. Hilabetero liburu denda, egunkari eta irratietatik banan banan propaganda banatzen; hilabetero aktualitateko hizlari diferentea bilatzen, hilabetero jabetxeekin tratua egiten, hilabetero hara eta hona. Ia 50 afari antolatu zituen, bost urte guztira; denok zoriontzen genuen ideiatatik baina lehen afarian bezala azkenean ere Xabier izan zen antolamenduaren kontu guztietaz arduratu zen militante bakartia. Etsi behar izan zuen azkenean, Udalak ematen zituen subentzioen desorekaren biktima, urterik urte dirua galtzen zuelako. Bilbon urte luzez egin duen lan mardula eta, batez ere, gure artean hain ezohikoa dugun umiltasun horregatik nabarmendu da Xabier Lopez de Gereñu. Garbi da ez duela tokirik euskalgintza deitzen dugun honetan. Pentsaerazteko adibidea, hasierako laukote hartatik oraindik bizirik dugun izen bakarrarena.

Oinarrizko planteamenduetan zerikusirik ez badu ere, ondorioen balantzean antzerako zerbait esan dezaket *Federico Krutwig* jakintsuaz. Munduaz ondo jantzita Bilbora itzuli eta 1986an *Jakintza Bai*ta elkarte sortu zen bere inguruan. Kultura klasikoaren defendatzaile sutsua, euskara batuak abiatutako bidea euskal inkulturarekin parekatzen zuen Federicok, berak hizkuntza literario eta maila jasorako eman zuen aterabidea, lapurtera klasikoarena, Euskaltzaindiak

baztertua zionez geroztik.

Euskal kulturaren Bilboko periferian ezin aipatu gabe utzi *Maskarada* teatro taldearen fenomenoa, Karlos Paneraren aginduetara oso produkzio duinak egin dituen, ahozko euskera batua normalizaziotik oraindik nahikoa urrun dagoela kontutan hartuta. Ez da gutxi baldintza horietan hogeitaz bizi irautea.

Eta hamarkada honen kronika laburrarekin bukatzeko, Udala bera gehitu behar diogu zerrendari. *Euskera Zerbitzua* 1985ean sortua, urte bi beranduago hasitako legealdian hartu zituen bere lan molderako oinarriak, *Koldo Celestino* zinegotziaren eskutik. Hasieran *Euskera Batzorde* zabalean batu nahi izan zituen Bilboko euskaltzaleak eta azkenean *Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakunde* eman zion Urian euskera bultzatzeko protagonismorik handiena.

IV

Larogitamarretik hona mugimendurik izan da Bilboko euskeraren panoraman. Planteamenduan aldaketa nabaria ekarri digute azken hamar urteok: euskaltzaleon indar gehiena erreibindikazioan, protestan eta salaketan gastatu beharrean positibora jo eta euskeraz garatutako programen eskeintza asko hobatu da. Eta ez da holan planteatua izan euskaltegi osteko mintza-praktika modura, ikasle-entzako osagarri gisa, ez; helburu didaktikoaren muga gainditu eta euskaldunentzako guneak sortzea dute helburu aipatuko ditudan esperientziek, Bilbo aldeko euskal hiztunon trinkotzea, Uriko euskaldunon hizkuntz komunitatea osatzea azken batean.

Trinkotu kontzeptua erabiltzen dugun bakoitzeko asmatzaileak egile-esku-bideak kobratuko balitu, *Jose Mari Sanchez Carrión* lagun multimillionarioa genuke. Funtsezko kontzeptu hau eta beste askoren aita izanik ere, *Txepetxen* ekarpen nagusia bere filosofia orokorraren ikuspegia da, gure artean eragin handia izan duena.

Hizkuntzen arteko berdintasunaren printzipioan oinarrituta, ekologia linguistikoan murgildu nahi izan gaitu Jose Marik, gako hiztunon borondatean dagoela behin eta berriro azpimarratuz. Duela bi urte eskas plazaratu zuen "*Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera*" obra alfa eta omega dugu; erreflexio luze eta sakon baten ondorioa batetik eta abiapuntua gainera, euskera herri eta uri honetako berezko hizkuntza behingoz bihurtu dezagun.

Zorrotzan, Santutxun, Irala aldean eta Zazpi Kaleotan *Euskal Txoko* deituta-koetan urte guztiko programazioa eskeintzen dute urte guztiko lanean ari diren antolatzaileei esker, gai guztiz mundanoen inguruan: argazkia dela, edo gimnasia, edo mendia, edo musika modu ahalik eta erakargarrienean. Adibide moduan, eta ez daitezela beste txokoetakoak mindu, Kalderapekon Zazpi Kaleetakoak eskaintzen ari diren poesia eta jazz musikaren koktel goxoa. Eskertze-koa da haize fresko hau, euskeraz jardutea eta euskerari buruz jardutea sarrie-

giko sinonimoa izan den gure giro deformatuan.

Bide beretik eraiki da euskera Bilbon normaltzeko inoiz burutu den proiekturik indartsuena. *Kafe Antzokiaz* ari naiz. Proiektu hiru bider indartsu.

Bat, Abandoren bihotzean kokatuta. Marjinaliaren estetikari uko egin eta hiriaren kriseluan bertan txertatu zuten 1995eko abenduan Gabriel Aresti euskaltegiak Bilboko zein bilboratutako euskaldunon erreferentzia ezinbestekoa, *Teodoro Etxaburu* eta *Jabi Lauzirika* bizkaitarrak buru.

Bi, gaurko bizimoduko kontu serio guztietan bezala, asko pentsatu eta kalkulatu ondoren egin beharreko inbertsio handiari aurre egiteko, maileguak banaketxei eskatu eta erantzuteko zama hartu zuten bazkideek urte luzeetarako. Gainerako gauza inportanteetan egiten dugun bezala, inporta zaizkigun gauzetan esan nahi dut. Horixe da buruan zerabilten planari seriotasuna emateko erabateko seinalea. Eta, bide batez, uko egiten zioten ezinbesteko subentzioaren morrontzari, non erakunde publikoen kapritxoek edo momentuko egoera politikoak eragin handiagoa hartzen du proiektuen helburuak berak baino.

Hiru, enpresaren ikuspegia, non irabaziak inbertitzen doaz ametsa errealitate bihurtuko diguten bide berrietan. Jantokiaren eskaparatearen dendaostean eskeintza gero eta integralagoa, gero eta osotuagoa zerbitzatzen digute mahai gainera *Antzoki*koek, ona eta oso merkea gainera. Ikuskizun eta kantaldiak, gehienak sentsibilitate handiko sintonian programaturik. Estetika hori definitzen duten hiru hitz funtsezko: *Jose-Angel-Irigarai*, euskaldun oso eta euskaltzale eredugarria. *Bilbo Hiria irratia*, emisora konbentzionaletan sarrerarik ez duten iritzi eta bibentzien altaboza. *Algara* konpartsa, Bakaikua, aldizkaria eta argitaletxea, tailerren esperientzia, *Argos* bidaiak, eta oraindik hain ezaguna ez den J.M.Sanchez Carrión *Hololinguistika Fundazioa*. Dena bost urtetan. *AEKK* jarritako *Kalderapeko* haren itzalera doala dirudi, formato txikiko ikuskizun kontuetan batez ere.

Enpresetaz ari garela, dendetarako eta orokorrean euskaldunon kontsumorako *Artez*koek (1990) merkatuan sartu dituzten produktuen katalogoa ez da broma. Durangoko Azokan beraien saltokia inbaditzen duten ume, gazte eta ez hain gazteen tropelak garbi hitz egiten du *Patxi Alañak* eta bere taldeak Deustuko txokotik egin duten eta egiten duten lanaz.

Egia da ez zaigula guzti hau mirari moduan gertatu. Sintomak aspalditik zetozen. 1983an eratu zuten *Arrasate Euskaldun Dezagun* (AED) taldea har daiteke guzti honen abiapuntu moduan. Zerbitzuak eskeiniz euskerarentzat gero eta bizi-funtzio gehiago irabaztea izan da betidanik arrasatearren filosofia garbia, komunikabide eta aisialdiaren alderdian gauzatuta bereziki. Mondragoiko ereditik hala-holako kopiak sortzen joan dira. Euskera taldeen loraldikoa da azken hamarkada, eta berauen eskutik herri aldizkariena.

Bilboraino ere heldua da uhinaren seinalea. Begoña aldetik irten gabe *Batana Batu*, *Asapala*, *Mabatserri*, *Troka*, *Matiko'ko Kultur Taldea* eta *Itsaslamiak*

taldeak ditugu, denak euskera bultzatzeko helburu nagusiaz; lehenego taldekoek *Berton* aldizkaria hileru hileru atera dute azken 30 hilabeteotan, Begoñari eta bertako euskerari oso lotuta dagoen argitalpen homologatuan.

Deustu aldean *Berbaizu*, hamarkadan zehar izan diren ahaleginen sintesi moduan, tartean *Hitzartu* eta *Prest* berria. Edo *Bilbo Berbetan-Ibazabal* elkar-
tea, Urian euskeraz ziren ekitaldien agenda urte batzuetan prestatu ziguna; Erre-
kaldeberrin *Elgera*, *Gazte Leku* eta *Onki Xin*; Indautxun *Samikolako Lagunok*,
Olabeagan *Jator*, San Frantziskon *Palanka*. Berdin *Uztarri* eta *Auzokideen*
Indarra; seguru baten bat ahaztu egin dudala. Denak programa erakargarriak
osatu nahian, nor bere neurrian.

Azken hamarkadan bertsolaritzan gertatutakoak bere eragina izan du On
Diegoren Urian ere. Komunikabideen eraginez eta erakunde publiko zein kut-
xen babesean izandako eztandak bere arrastoa utzi digu. Askoz urte lehenago-
tik ari zen *Santutxuko Bertsolari Eskolak* ziurtatua du luzaro gazteekin egiten
duena lana.

Antolamenduan inprobisazioari ezer gutxi uzten dion bertsolaritzaren inguru
honetan hizkuntzan gertatutakoaren antzerako zerbait ikusi dugu gure
hirian: lehendik zetorren zalea, Areetzara batzen ziren haien ezpalekoa, ez da
hurbiltzen gaurko saio ugarietara, oraingo bertsolarien estetika eta tonua arrot-
zegi egiten zaiolako. Gazteak, ordea, barra barra, unibertsitarioak bereziki;
beraiek baitira telebista, egunkari, disko eta gainerako produktuen kontsumit-
zailerik fidelenak. Pelotan ez bezala, bertsozale belaunaldien artean etena ger-
tatu delakoan nago. Baina horrek gurea bezalako metropoli erdaldunean eragin
eskasa du oraindik.

Bukatu baino lehen, berba pare bat mendearen akaberak utzi didan zapore-
az.

Euskalki zaporea utzi dit; euskalkiaren aldeko zaporea, hobe esanda.
1968ko batuaren ajeak, eskasiak, gehiegikeriak, sendabelarrak eta bestelako
saltsa ugari plazaratu da azken boladan. Kurioso da ikustea nola ahotsa gehien
altxatu dutenak ez dira izan euskalkiak aberatsatzat eta ezinbestekotzat betida-
nik hartu izan dutenak, ez. Horiek uniformitatearen ekaitzari eustearekin nahi-
koa izan dute, beraien lanean sinestuta, begirada epe luzera jarrita. Harrigarria
da euskalkien defentsa sutsuaren diskurtsoa etortzea nondik eta orain hiru
hamarkada batuaren bandera atzean lehen lerroan zihozanen aho eta lumatik.
Frankismoaren bukaeran gazte zirela modernitatearen aldeko apostua egin
zuten; 25 urte geroago, gizon helduen adinean eta hiritik herrirako bueltako
bidaian, batuaren formulak euskalki bakarra bideratu duela ohartuta, oreka
eskatzera datoz hurbileko hiztun zahartuen hizkera galtzear ikustean. Euskalkia
hizkuntzaren aditiboa baino, hizkuntza bera dugula aldarrikatzera datoz, eta
tokian tokiko formei kontu estandarretan ez baina bestelako zereginetan lehen-
tasuna eman behar zaiela. Oreka, azken batean.

Penduluaren legearen usaina hartzen diot erreakzio honi; gauza guzti horiek aspaldi esanak ziren batuarena goitik behera onartu ez zuten batzuen aldetik. *Oskilasoren* “*El libro negro del euskera*” baino liburu ezkutatu eta isilduagorik ez dut ezagutzen hizkuntzaren auziak mendearen azken laurdenean eman dituenetarik.

Batuak zabalkunderako tresna moduan izan duen bilakaera eta honek sortu-tako insatisfakzioaren fruitua dugu *Mendebalde* elkartearen doinu bakarreko partituruaren kontra. Bizkaieraren defentsa eta sustapenerako talde honetan bada, beste askoren artean, ikerlari bilbotar bat, bizitza erdia baino gehiago herriz herri eman duena hango eta hemengo erregistroak batzen. *Iñaki Gaminde* irakaslea. Bilbon bertan Larraskitu, Buia eta Begoñaldean batu zituen bertoko euskeraren azken aztarnak. Ez du bere lanak zerikusi handirik giza-mugimenduekin beharbada, baina bai izan daiteke mugimenduaren norabidea erabakitzeke elikagai prezia-tua. Horregatik ekarri dut laburpen honetara.

Giza eta mugimendu handikoa gertatu zen *Bai Euskarariren revivala* 20 urte beranduago, San Mamesen bertan eta, horra nobedadea, aldi berean gainerako futbol zelaletan ere. Jende mordoa eta betiko sinbologia trszendentala. Askoz gehiago omen gara. Kanpainaren helburua, sentimenduak astintzetik haratago, sektore ekonomikoan eragitea da gehien bat. Ikusiko dugu, eta hurbiletik gainera, noraino heltzen den, Bilbo baita euskeraren herriaren ekonomiako eragi-leetan esparru nagusia.

Bizkaieraz probintzia guztirako emititzen duen irrati bakarra Bilbon kokatu-ta dago, Funikularren ondoan. *Bizkaia Irratia* lehengo *Herri Irratia FM*ko programazioaren jarraipen naturala dugu eta, Uriko hainbat ikastola eta ikaste-gi legez, Obispadoaren titularitatekoa.

Beste zaporea klarionarena da. Gure egoeran normala da guztiz irakaskuntza-ren bidearen garrantzia gehiago nabarmentzea zonalde euskaldunagoetan baino. Baina gehiegi nabarmendu delakoan nago. Hau da, D ereduko andereñoek eman dezaketena baino askoz gehiago eskatzen ari zaiela. Ekimen asko burutzen dira eskolako giroa euskaldundu nahian, irakasle, guraso zein erakundeen aldetik. Eta oso ondo datorkie etxe erdaldunetako ikasleei batez ere; baina eskolak ezin du ordezkatu Uriak ematen ez diena; ezin du eta ez du ordezkatu behar. Belaunaldi zaharrena eta gazteena kate berean sartuko dituen hiztunen komunitatea osatzen ez dugun bitartean, alferrik da etorkizuna euskeraz datorrela eta halako eslogan hutsalak pankarta, orma eta buzoietan aldarrikatzea.

Sinetsi egidazue laburtzen saiatu naizela. Nahi duzuen arte, eskerrik asko zuen pazientzia eta arretagatik.